

EUSKAL TRENBIDE SAREA ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA ELGOIBARKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, TRENBIDE AZPIEGITURA TRAZATUA HOBETZEKO ETA ELGOIBARKO GELTOKIAREN HIRI BERRANTOLAKUNTZARAKO AZTERLANAREN FINANTZAKETARAKO

Bilbon, 2008ko(ren)(e)(a)n

BILDUTA

Alde batetik Nuria López de Guereñu Ansola Andre Txit Argia, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiko Garraio eta Herri Lan Sailaren esku dagoen Zuzenbide Pribatuko Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoko Presidentea.

Bestetik jauna, Elgoibarko Udaleko Alkate gisa, 2008ko(ren)(e)ko osoko bilkuraren erabakiz.

PARTE HARTZEN DUTE:

Nuria Lopez de Guereñu Ansola andrea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiko Garraio eta Herri Lan Sailaren esku dagoen Zuzenbide Pribatuko Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoko Presidentea, haren izenean, horretarako baimenarekin, 2008ko(ren)(e)ko Administrazio Kontseiluaren erabakiz.

CONVENIO ENTRE EL ENTE PÚBLICO RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREA Y EL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR PARA LA FINANCIACIÓN DEL ESTUDIO PARA LA MEJORA DEL TRAZADO DE LA INFRAESTRUCTURA FERROVIARIA Y LA REORDENACIÓN URBANA DE LA ESTACIÓN EN ELGOIBAR

En Bilbao, adede 2008

REUNIDOS

De una parte la Excm. Sra. Dña Nuria Lopez de Guereñu Ansola, Presidenta del Ente Público de Derecho Privado Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea, adscrito al Departamento de Transportes y Obras Públicas de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

De otra, D. , en calidad de Alcalde del Ayuntamiento de Elgoibar, actuando en virtud del acuerdo plenario de fecha de de 2008.

INTERVIENEN:

La Excm. Sra. Dña Nuria Lopez de Guereñu Ansola, Presidenta del Ente Público de Derecho Privado Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea, adscrito al Departamento de Transportes y Obras Públicas de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en representación del mismo, habiendo sido autorizada a tal efecto por el Consejo de Administración en su sesión de de de 2008.

..... jauna,
Elgoibarko Udaleko alkatea, emandako
ordezkaritzarako lege gaitasuna erabiliz.

Parte hartzaileek, adminis-
trazioen arteko harreman guztiek bete
behar dituzten koordinazio, elkarlan eta
elkarrekiko errespetu printzipioen
markoaren barruan, elkarri honako
ELKARLANERAKO HITZARMENA sina-
tzeko gaitasuna aitortzen diote, eta,
horretarako, honako hau:

ADIERAZTEN DUTE

- I. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunei dagozkiela eskumena, oso-osorik Autonomia Erkidegoko lurralde barruan dagoen ibilbidea duten trenbideen alorrari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluan xedatutakoa betez, eta baita interes orokorreko izaera ez duten herri lanena edo burutzapena beste lurralde batzuetan eraginik ez duenean, aipatutako Lege Organikoaren 10.33 artikuluan xedatutakoa betez.
- II. Eskumen hori eta auto-antolakuntzarako gaitasuna betez, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioak, maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen bitartez, "Red ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea" Erakunde Publikoa sortzea erabaki zuen. Erakundearen xedea "trenbide garraioko azpiegiturak eraikitzea, kontserbatzea, kudeatzea eta administratzea da", eta, horretarako behar diren ondasunak adskribatu zitzaizkion, Eusko Trenbideak – Ferrocarriles Vascos sozietate publikoaren kapital murrizketari eta Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoaren esku uzteari buruzko ekainaren 6ko 118/2006 Dekretu bitartez.

El Sr. D. , alcalde
de Elgoibar, en ejercicio de la capacidad
legal de representación conferida.

Los intervinientes, dentro del
marco de los principios de coordinación,
colaboración y respeto mutuos que
deben informar todas las relaciones
interadministrativas, se reconocen
mutuamente capacidad legal para
celebrar el presente CONVENIO DE
COLABORACION, y a tal efecto:

EXPONEN

- I. Que corresponde a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma de Euskadi la competencia exclusiva en materia de ferrocarriles cuyo itinerario se desarrolla íntegramente en el territorio de la Comunidad Autónoma de conformidad con lo dispuesto en el art. 10.32 del Estatuto de Autonomía, y las obras públicas que no tengan la condición de interés general o cuya realización no afecte a otros territorios, en virtud del art. 10.33 de esta Ley Orgánica.
- II. Que en ejercicio de dicha competencia y de su potestad de autoorganización la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, mediante Ley 6/2004 de 21 de mayo, acordó la creación del ente público "Red ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea", cuyo objeto social consiste en la "construcción, conservación, gestión y administración de infraestructuras de transporte ferroviario", para lo que se adscribieron los bienes necesarios para la prestación de su servicio mediante Decreto 118/2006, de 6 de junio, de reducción de capital de la Sociedad Eusko Trenbideak – Ferrocarriles Vascos y de adscripción de bienes al ente público Euskal Trenbide Sarea.

<p>III. Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuz behin betiko onetsitako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Jarraibideek aurreikusten dutela, hirigune konplexuetan garraio azpiegitura desberdinak antolatu ahal izateko, sektoreen ikuspegia gainditu behar dela, hirigintzako estrategien eta azpiegitura aurreikuspenen arteko elkarreragina bermatuz, kontzertazioaren kulturari sakonduz, parte hartzen duten elkarte edo erakunde guztien erlazioak.</p>	<p>III. Que las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobadas definitivamente por Decreto 28/1997, de 11 de febrero, prevén, que para la ordenación de las distintas infraestructuras de transporte en áreas urbanas complejas, debe superarse el enfoque sectorial, garantizando una correspondencia entre las estrategias urbanísticas y la previsión de las infraestructuras a través de una profundización en la cultura de la concertación para las relaciones entre los diferentes organismos e instituciones involucrados.</p>
<p>IV. Apirilaren 12ko 86/2005 Dekretuz onetsitako Eibarko gune funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren helburu nagusia, 16 urteko denbora esparruan burutu beharreko eta lurralde mailan eragina duten ekintzak koordinatzea da, gune funtzionalaren garapen iraunkorra bermatu ahal izateko.</p>	<p>IV. Que el Plan Territorial Parcial del área funcional de Eibar, aprobado por Decreto 86/2005, de 12 de abril, tiene como objetivo principal coordinar las acciones con incidencia territorial que se deben producir en un horizonte temporal de 16 años para garantizar el desarrollo sostenible del área funcional.</p>
<p>V. Otsailaren 27ko 41/2001 Dekretu bitartez onetsitako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Sektoreko Lurralde Planak aurreikusten duela, merkantzien trafikoa posible bilakatzeko, bidaiarien trafikorako beharrezkoak diren bikoizketa lanez gain, horiek Durango eta Zaldibar arteko zatiaren osotasunera eta Ermua eta Eibar arteko zatira zabaltzea, bai eta Elgoibarko geltokia egokitzea ere.</p>	<p>V. Que el Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Decreto 41/2001, de 27 de febrero, plantea para posibilitar el tráfico de mercancías, además de los desdoblamientos necesarios para el tráfico de viajeros, ampliar éstos a la totalidad del tramo entre Durango y Zaldibar, y entre Ermua y Elgoibar, así como la adecuación de la estación de Elgoibar.</p>
<p>VI. Elgoibarko Udalarari dagozkiola Toki Araubideko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ematen dizkion eskumenak, hirigintza antolamenduari dagokionez, beste batzuen artean</p>	<p>VI. Que al Ayuntamiento de Elgoibar le corresponden las competencias que así le confiere la Ley 7/1985, de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local, en materia de ordenación urbanística</p>

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezartzen dituen xedapenetan oinarrituz.

Parte hartzen duten aldeak bat datozela esaterakoan beharrezkoa dela trenbidearen trazatua hobetzea Elgoibartik igarotzean, Elgoibarko udalerriko geltokiaren inguruan burutu behar den hirigintza alorreko berrantolakuntza jarduketarekin koordinaturik, eta ados daude bakoitzaren interesei dagozkenez eta beraien arteko elkarlanerako espirituan eta elkarrekiko errespetuan oinarrituz, honako ELKARLANERAKO HITZARMENA formalizatzea erabaki dute, honako klausula hauetan oinarrituz:

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca erakunde publikoaren eta Elgoibarko Udalaren arteko elkarlanerako oinarriak ezartzea da. Bi erakundeek konpromisoa hartzen dute elkarlanean aritzeko bertan ematen diren interesak koordinatzeko eta bateratzeko, eta udalerrian trenbide trazatua hobetzeko lanak aztertuko dituen azterlanak burutzeko, geltokiaren inguruan batez ere, eta inguru horretarako aurreikusita dagoen hiri berrantolakuntzan sartzeko, trenbidearen trazatua eta geltokia hirian hobeto integraturik gera dadin.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren pentzura finantzatu beharreko azterlanak.

Hitzarmen honen pentzura trenbidearen trazatua eta geltokia hiri gunean hobeto integratzeko azterlanaren idazketa finantzatuko da,

en base a los preceptos que entre otros establece la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Que las partes intervinientes coinciden en la necesidad de mejora de trazado ferroviario a su paso por Elgoibar, de forma coordinada con la reordenación urbana que debe desarrollarse en el entorno de la estación término municipal de Elgoibar, estando de acuerdo en sus respectivos intereses y en cumplimiento del espíritu de colaboración y de respeto mutuo en sus relaciones, deciden formalizar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN conforme a las siguientes

CLAÚSULAS

PRIMERA.- Objeto del Convenio.

El presente Convenio tiene por objeto fijar las bases de cooperación entre Euskal Trenbide Sarea y el Ayuntamiento de Elgoibar, que se comprometen a colaborar para coordinar y aunar los intereses concurrentes y desarrollar un estudio que analice las mejoras de trazado ferroviario en el término municipal, especialmente en el entorno de la estación, y su encaje en una nueva reordenación urbana para dicha zona, de manera que posibilite una mejor integración urbana del trazado ferroviario y de la estación.

SEGUNDA.- Estudio a financiar con cargo al Convenio.

Con cargo a este Convenio se financiará la redacción de un estudio para lograr la mejor inserción de la traza ferroviaria y estación, en un medio

<p>kontuan izanik hirigune horren berrantolakuntza azterketa xedea dela, Hitzarmen honen lehen klausulan xedatzen denez. Horren aurrekontua 203.000.-€ ingurukoa izan daiteke, BEZ barne.</p> <p>HIRUGARRENA.- Euskal Trenbide Sarea – Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca Erakunde Publikoak hartzen dituen konpromisoak.</p> <p>Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca erakunde publikoak honako konpromisoa hartzen du:</p> <p>a) Azterlanaren idazketa. Horretarako, erakundeak dituen baliabide teknikoak edo zuzenbidean baliagarriak diren beste batzuk erabili ahal izango ditu, zerbitzuen lizitazioa, besteak beste.</p> <p>b) Zati bat finantzatzeko xedez, Azterlanerako aurreikusten den kopuruaren erdia jartzeko, 101.500 € inguru, BEZ barne.</p> <p>c) Lizitazio espedientea izapidetzeko, kontratu honen xede den azterlana kontratatatzeko.</p>	<p>urbano cuya reordenación es objeto de análisis conforme la cláusula primera de este Convenio, cuyo presupuesto aproximado podría ascender a 203.000.-€. IVA incluido.</p> <p>TERCERA.- Compromisos por parte del Ente Público Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca.</p> <p>El ente público Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca, se compromete a:</p> <p>a) Redacción del Estudio, para lo que se dispondrá de los medios técnicos propios del Ente y/u otros válidos en derecho, como es la licitación de los servicios.</p> <p>b) Aportar a efectos de financiar parcialmente el 50% del coste estimado del Estudio, que asciende aproximadamente a 101.500 €, IVA incluido.</p> <p>c) Tramitar el expediente de licitación para la contratación del estudio objeto de este contrato.</p>
<p>LAUGARRENA.- Elgoibarko Udalak hartzen dituen konpromisoak.</p> <p>a) Euskal Trenbide Sarearekin elkarlanean aritzea, Erakunde horrek eskatzen dituen alderdi guztietan, aipatutako azterlana idatzi ahal izateko.</p> <p>b) Zati bat finantzatzeko xedez, Azterlanerako aurreikusten den kopuruaren erdia jartzeko, 101.500 € inguru, BEZ barne.</p>	<p>CUARTA.- Compromisos por parte del Ayuntamiento de Elgoibar.</p> <p>a) Colaborar con Euskal Trenbide Sarea en todos los aspectos que este Ente requiera para la redacción del Estudio referido.</p> <p>b) Aportar a efectos de financiar parcialmente el 50% del coste estimado del Estudio, que asciende a la cantidad de 101.500 €. IVA incluido.</p>

BOSGARRENA.- Azterlanaren idazketari buruzko konpromisoak.

1. Kontratazio espedientearen lizitazioaren aurretik, Elgoibarko Udalak hark eskatu eta hamar eguneko epearen barruan, Euskal Trenbide Sarea - Red Ferroviaria Vasca erakunde publikoari, bere gain hartutako finantza konpromisoa estaltzeko kreditu egokiaren eta nahikoaren disponibilitatea erakusten duen ziurtagiria igorriko dio.
2. Euskal Trenbide Sarea - Red Ferroviaria Vasca erakunde publikoak zerbitzu kontratuaren lizitazioa burutuko du, eta prozesuaren garapenaren eta kontratuaren esleipenaren berri emango dio seigarren klausulan aurreikusten den Batzordeari.
3. Halaber, zerbitzu kontratuen esleipen proposamena formulatu ondoren, Elgoibarko Udalak, hark eskatu eta hamar eguneko epearen barruan, Euskal Trenbide Sarea - Red Ferroviaria Vasca erakunde publikoari, bere gain hartutako finantza konpromisoa estaltzeko kreditu egokiaren eta nahikoaren disponibilitatea erakusten duen ziurtagiria.
4. Kontratu honen ziurtapenak, Erakundeak izendaturiko Zuzendari teknikoak eman ondoren, Elgoibarko Udalera igorriko dira, ordaindu beharreko diru kopurua adieraziz, eta hark ordaintzeko beharra izango du, horretarako ezartzen den kontu korrontean. Akatsik hautematen bada, Elgoibarko Udalak bost eguneko epearen barruan jakinarazi beharko dio erakunde publikoari, epe berean akats horiek zuzendu ahal izateko.

QUINTA.- Compromisos relativos a la redacción del Estudio.

1. Con anterioridad a la licitación del expediente de contratación, el Ayuntamiento de Elgoibar remitirá al ente público Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea los certificados de existencia de crédito adecuado y suficiente para la cobertura de los compromisos financieros que asume, en los diez días siguientes a que le sean solicitados por ésta.
2. El ente público Euskal Trenbide Sarea - Red Ferroviaria Vasca llevará a cabo la licitación del contrato de servicio, informando del desarrollo del proceso y de la adjudicación del contrato a la Comisión de carácter institucional prevista en la cláusula sexta.
3. Asimismo, tras la formulación de la propuesta de adjudicación del contrato de servicios, el Ayuntamiento de Elgoibar remitirá al ente público Euskal Trenbide Sarea - Red Ferroviaria Vasca en los diez días siguientes a que le sean recabados por el mismo, el certificado de la disponibilidad del crédito adecuado y suficiente para la cobertura del compromiso financiero asumido.
4. Las certificaciones de este contrato, una vez extendidas por el Director nombrado del Ente, serán remitidas al Ayuntamiento de Elgoibar, con indicación del importe a aportar, quedando éste obligado a su ingreso en la cuenta que al efecto se establezca. Si se detectaran errores, el Ayuntamiento de Elgoibar deberá comunicarlo al ente público en el plazo máximo de cinco días, para que en igual plazo, sean subsanados.

<p>5. Esleipenaren prezioan ondorio ekonomikoak dituzten eta gerta daitezkeen kontratuko gorabeherak (adibidez kontratu aldaketak, prezioen berrikuspenak, inposizio tipoen aldaketak, etab.) bi erakundeek finantzatuko dituzte, Hitzarmenean aipatutako finantzaketa ehuneko berebean.</p> <p>6. Azterlana burutu ahal izateko, eta beti ere Erakundeak trenbide sareari eta geltokiari dagokienez dituen beharrak bermaturik geratu ondoren, Udala izango da sektoreko hirigintza garapeneko alderdiei buruzko erabakiak hartuko dituena, udaleko hiri antolamenduarekin bat etorritz.</p> <p>7. Azterlana idazteko aurreikusten den epea sei hilabetekoa izango da, dagokion zerbitzuaren esleipena lortzen duen enpresarekin kontratua sinatzen den unetik aurrera.</p>	<p>5. Las incidencias contractuales, que en su caso se produzcan, con repercusión económica sobre el precio de adjudicación (tales como modificaciones contractuales, documentos complementarios a este contrato, etc.) serán financiadas por ambas entidades, serán financiadas por ambas instituciones en el mismo porcentaje de financiación señalado en el Convenio.</p> <p>6. Para la redacción del estudio, y dejando siempre garantizadas las necesidades del Ente en relación a la red ferroviaria y la estación, corresponderá al Ayuntamiento decidir sobre los aspectos de desarrollo urbanístico del sector, de conformidad con la ordenación urbana municipal.</p> <p>7. El plazo estimado para la redacción del estudio se estima en seis meses, contados desde la firma del contrato con la empresa que resulte adjudicataria del correspondiente servicio.</p>
<p>SEIGARRENA.- Jarduketan zuzendaritza, koordinazioa eta jarraipena.</p> <p>1. Hitzarmen honen zuzendaritzarako, koordinaziorako eta jarraipenerako batzordea eratuko da.</p> <p>2. Erakunde izaera duen Batzordea eratuko da, eta bost kidek osatuko dute: Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca erakunde publikoko bi kidek, Elgoibarko Udalaren beste bi kidek eta Erakundeak izendatzen duen fakultatiboak.</p> <p>Batzordeak honako funtzio hauek izango ditu:</p> <p>a) Hitzarmen honetan aurreikusitako jarduketan ohiko azterlanaren jarraipena egitea, elkarrekiko informazioa eta bakoitzaren</p>	<p>SEXTA.- Dirección, coordinación y seguimiento del proyecto.</p> <p>1. Se constituirá una Comisión para la dirección, coordinación y seguimiento del presente convenio.</p> <p>2. Una Comisión de carácter institucional, que estará compuesta por cinco representantes: dos representantes del ente público Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca y otros dos del Ayuntamiento de Elgoibar, y el facultativo que designe el Ente.</p> <p>La función principal de esta Comisión es:</p> <p>a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución del estudio previsto en el presente convenio, determinando los criterios y modos</p>

<p>konpromisoak behar bezala betetzen direla ikustea posible egiteko irizpideak eta erak zehaztuz, alde bakoitzari dagozkion izapideak betetzeko prozesua arintzeko ahaleginak eginez.</p> <p>b) Plantea daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea, elkarrekiko informazioa eta bakoitzaren konpromisoak behar bezala betetzen direla ikustea posible egiteko irizpideak eta erak zehaztuz.</p> <p>c) Kasu bakoitzean eskatzen diren izapideen azkartasuna zailtzen duten oztopoen enkaitzea erraztea.</p> <p>Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, batzordea bi hilabetez behin bilduko da edo, bi aldeetakoren baten eskariz hala eskatzen denean. Batzordearen Burua eta Idazkaritza Erakundeko kideei izango dute. Bilera egiteko eta akordioak hartzeko quoruma, kide guztiek aho batez onartzea izango da.</p> <p>Hitzarmenean izaera instituzionaleko batzorderako beren beregi aurreikusten ez denerako, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen II. kapituluaren arau-petzen den organo eskuordetuen arabidea aplikatuko da.</p> <p>Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca erakunde publikoak Azterlanaren idazketan gertatzen diren gauza garrantzitsuenen berri emango dio erakunde batzordeari.</p>	<p>para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos, tratando de agilizar el cumplimiento de los trámites que correspondan a cada una de las partes.</p> <p>b) Resolución de problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.</p> <p>c) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridas en cada caso.</p> <p>Durante la vigencia del convenio, la comisión se reunirá cada dos meses o siempre que así se requiera por cualquiera de las partes, correspondiendo la Presidencia y la Secretaría de la misma a los representantes del Ente. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.</p> <p>En lo no previsto expresamente en el convenio para la comisión de carácter institucional, le será de aplicación el régimen de los órganos colegiados regulado en el capítulo II de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.</p> <p>El ente público Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca dará cuenta a la comisión institucional del desarrollo de los acontecimientos más significativos que se produzcan durante la redacción del Estudio.</p>
--	--

<p>Hitzarmenean jarraipen batzordeko beren beregi aurreikusten ez denerako, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen II. kapituluan araupetzen den organo eskuordetuen araubidea aplikatuko da.</p> <p>ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.</p> <p>Hitzarmen honen izaera administratiboa da, eta bere interpretazioan eta garapenean, administrazio publikoen arteko elkarlanerako hitzarmenei aplikatzen zaien ordenamendu juridiko administratiboak araupetuko du.</p> <p>ZORTZIGARRENA.- Ondoreak eta iraupena.</p> <p>Hitzarmenak ez du eragingo inolaz ere, parte hartzen duten aldeen eskumenen baztertzea edo aldaketa, izan ere, alde horiek, hitzarmenaren ondorioz hartzen dituzten konpromisoekin lotutako erantzukizunak baino ez dituzte hartuko beren gain eta zehatz-mehatz adostuko dira ondoren burutuko diren elkarlanerako dokumentuetan.</p> <p>BEDERATZIGARRENA.- Kontratua- ren iraugitzea.</p> <p>Aldeetakoren batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste aldeak eskubidea izango du hitzartutakoa betetzea eskatzeko edo hitzarmena suntsiaraz dadin eskatzeko. Suntsiarazpena gertatuz gero, aldeek zehaztuko dituzte burutzen ari diren lanen eta jada buruturik daudenak kalteturik gera ez daitezen.</p>	<p>En lo no previsto expresamente en el convenio para la comisión de seguimiento, le será de aplicación el régimen de los órganos colegiados regulado en el capítulo II de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.</p> <p>SEPTIMA.- Régimen e interpretación del Convenio.</p> <p>El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre las Administraciones Públicas.</p> <p>OCTAVA.- Efectos y vigencia.</p> <p>El Convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen y que serán acordados de forma pormenorizada en posteriores documentos de colaboración.</p> <p>NOVENA.- Extinción del Convenio.</p> <p>El incumplimiento por algunas de las partes de los compromisos asumidos facultará a las demás, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las obras que se hallen en ejecución.</p>
---	--

Eta adostasun froga gisa bertaratutakoek agiri hau sinatu dute, laukoizturik, buruan adierazten diren tokian eta egunean.

Y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por cuatuplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

RED FERROVIARIA VASCA- EUSKAL
TRENBIDE SAREA ERAKUNDE
PUBLIKOKO PRESIDENTEA,

DE ELGOIBARKO UDALEKO,
ALKATEA

NURIA LOPEZ DE GUEREÑU ANSOLA

ALFREDO ETXEBERRIA MURUA